

SEGURA

Hedadura: 9'2 Km*

Jaiak:

- Herrikoak: Ekainaren 24ean San Juan.
- Santa Barbara baseliza: Jasokundearen ondoko lehen igandean. Erromeria.

Biztanlegoa: 1.288 biztanle

- W Santa Engrazia baseliza: Apirilaren 16an. Goizeko mezataria haziak eramaten dira bedeinkatuak izan daitezten.
- Aste Santua: Aipagarriak dira ostegun eta ostiral santuko prozesioak.

Alfonso X. Jakintsuari zor dio izena Segurak; honek 1256an eta Pirinioz bestalderantz zihoazen bidaiariak babestearren, San Andres baseliza inguruetan lekututako biztanlegunetik gertu hiribildu harresitua eraikitzeko erabaki hartu bait zuen. Egiteko honek ez zuen izaera zehatzik Segurarekin batera, Arrasate, Bergara, Villafranca (Ordizia) eta Tolosa ere eraiki bait zituzten. Berrogeitamar urte baizik ez ziren igaro Gipuzkoa Gaztelari batu zitzaionetik. Garai beretsuan burutu Zen Alfonso VIII.aren eta Akitaniako Leonorren arteko ezkontza, honek Gaskonia zuelarik ezkon-saritzat. Egoera honek Gipuzkoako lurraldearen antolaketara sendotu zuen, eta Gaztelatik bi sarreragune ezarri ziren, Lenizko ibarra eta San Adrian. Bi bide hauek Villafrancara (Ordizia) iadanik bat eginda iristen ziren eta halaxe jarraitzen zuten Bidasoaraino.



Sorkundeko komentua.




Txakarra etxea.

Herria harresiz inguratuta sortu Zen, lur ebaki eta zubi altxagarriak zituela. Sarrera bost atetan zehar baizik ez zitekeen egin, dorretzarrez bikain zainduak guztiak.

Lekuturik dagoen eremuak estrategikoki baldintza oso egokiak ditu. Aurrekalde batean, Oria ibaiak babestutako mendi-zorrotza eta gibelean berezko mendilepoa dituela kokatzen da. Hainbat errekastok bat egiten duten ibarrean buru egiten du, erreka hauetan zehar inguruetako herrietara doazen errepedeak igarotzen direlarik. Gaztelu-hiritik Oria gaineko zubiak eta inguruko tren-sarea kontrolpetzen ziren.

Hiribildu berrian bertakotu ziren biztanleek Puebla-Kartanjasotako hainbat abantaila izan zituzten. Biztanle berri hauek zuzenean erregearen menean zeuden eta honek jauntxo feudalek zuten nagusitasunaren aurrean abantaila ugari ekarri zizkien.






Ardizaharra etxea. Habe-ko tailaren xehetasuna.



Kale Nagusiko etxeak.



Zubi Haundiko ataria.

Sortu eta handik laburrera inguruko hainbat herrikka eta lurralde batu zitzaizkion Segurari, bai berezko erabaki bitartez, bai Gaztelako erregeak halaxe aginduta.

Gainera herriak bailarako merkataritza biltzen zuen. Erret-pribilegioa zela tarte, erosgai guztiek Seguratik igaro behar zuten lehenengo, bertan ezarri zelarik aduana. Agindu hau nabarmen Zen kaltegarria Legazpin ekoizten Zen burniarentzat.

1420an ikaragarritzko sutea izan Zen eta berriaz 1492an. Bigarren sute honetan dorre bat eta Parroki-Eliza baizik ez ziren zutik geratu eta honenbestez, hiribildua oso-osorik berreraiki behar izan Zen. Orduko, harresituriko barrutiari gaina hartu eta sortuak ziren hainbat auzune Errege Bidearen sarrea eta irtera ondoan.

Errege-Erreginek laguntza ekonomikoen bitartez hiribildua berreraikitzen esku-hartu zuten. Halaz guztiz ere, orube ugari hutsik geratu ziren. Denbora gutxira, 1564ean, izurrite bat izan Zen eta herrian ere nabarmen izan ziren honen ondorioak.

XIV. mendean batu zitzaizkion herriekiko arazoak garai honetan hasten dira indar hartzen. Sistrak eta liskarrak luze iraun zuten. Legazpirekikoak batik bat, 1608an bereiztea lortu zuena, gainerakoek 1615era arte itxaron beharko dute hiribildutasuna eskuratzeko. Felipe III.ak Irunera egin zuen bidaian hainbat hiribildu titulu saldu zituen bere ekonomia onera ekartzearren.

Ez Zen, haatik, hemen amaitu Seguraren adur txarra, 1645ean 38 etxe kiskali zituen beste sute bat izan bait zuen. Oraingoan ordea, orube askotan ez zuten berreraiki eta eremu publiko bihurtu zituzten.



Jasokundeko Andra Mariaren parroki-eliza.

Ez Zen indarraldirik eragingo zuen efektu suspertzailerik gertatu, guztiz bestelakoa baizik. San Adrianen zehar igarotzen Zen Errege Bideari eustea geroz eta nekezagoa egiten Zen. San Adriango zubipea igarotzeko igo behar diren 1000 metrotatik gorako altuerak arazo ugari eragiten zien bidaiariari, negu garaian arriskutan ibili behar izaten zutenak. Ospetsua da Federiko III.ak egin zuen ibilaldia, elurra zela eta ia hilean egon zena.

1760an erregeak Madril-Irun artean Autoentzako Errege Bidea egiteko proposamena luzatzen duenean Biltzar Nagusiek, Segura, Oñati eta Legazpiren aurkakotasuna izan arren, Lenizko ibarraren bidearen alde egiteko erabaki hartzen dute. Egitasmoa urte gutxitara gailzatu zuten, eta honela Segura ohizko zituen merkataritza-ardatz nagusieneztatik berezia geratu Zen.

Nahiz eta Segura Biltzar Nagusiak egiten ziren herrietako bat izan, gero eta ahu-lago zegoen. Norteko trenbidea eta Etxegaraten zehar N-I errepedea egiteak, burdinolatan zegoen krisiaz batera erabat atzeratu zuten bigarren mailara, izandako merkataritza eta artesautza iragana ahazturik, guz-



Jauregi etxea.



Parroki-elizako erretaula nagusia.

tiz mendi-herrixken sailera lerratua geratu zelarik. Egoera honek halaz ere, beste herri batzuek industri-iharduera modernora biltzean jasan duten neurrigabeko hazkuntzatik babestu du. Honela bada, Segurak Gipuzkoako gizartean ertaroko arbasoengandik jaso den eraikitako sailik garbien eta zabalenera eutsi dio.

HIRIGUNE HISTORIKOA



Ez da erraza jatorrizko hiri egituraketa antzematea, bizi-tanlegoaren lekutzea araugabe gauzatu bait da. Kale Nagusiak eta Lardizabal Kaleak eutsi diote ederkien ertaroko tajuketari.

■ Kale Nagusia

Kale Nagusia, izena iadanik 1451an agi-rietan jasoa ageri dena, Errege Bideak herri-
tik igarotzean egiten duen bidearekin bat dator. Atariak desagertu badira ere, oraindik ikus daitezke harresian egindako igarogune hauen tokia erakusten duten bihurtuneak.

Herriko bide nagusi izateak bertan eraikitzen antzinakoan biltzea eragin du. 32. zbk.an Gebaratarren oinetxea lekutzen da, 1492ko sutearen ondoren eraiki zena. Harlanduzko fatxada nagusian sarrera-arkua, armaria, hiruobulutako leihoak eta teilatuko xurrutarriak dira aipagarriak.

12. zbk.ko Ardzaharra etxea lurralde osoan hiri-etxerik ikusgarrientzat hartua dago. Fatxadan, hormaren entokadura gaizki dagoelako egurrezko bilbadurak ikus daitezke. Zulo gutxi zabaldu zaizkio eta direnak txikiak dira. Goiko solairua hegalkin eginez eraiki da, erdiko habea ikusgarria duelarik, tailazko lan bikaina duena.

Honen ondoan Txakarra etxea lekutzen da, barroko estiloko jauregi hiritarra; hemen adierazgarriena kuxindurazko harlandua



Parroki-elizako korua.

ezezik, fatxada nagusiaren buruan lekutzen den armari eskerga da.

Balanzegi etxea kalearen 4. zbk.an lekutzen da. Igartzatarren oinetxe izan da eta hauena da 1543 urtearekin duen armaria, hormarria eman zitzaioneko uneari erreferentzia egiten diona.

Kale honetatik abantatzen da Zubi-Haundi zubian zehar Zerain eta Mutilora zihoan bidea. Iterra honetan zubiaren izen bereko ataria gorde da (*4). XVI. mendekoa da eta honen gainean eraiki Zen bi mende beranduago etxebizitza bat.

■ Parroki-Eliza(*1)

Jasokundearen Andra Mari eliza hiru nabetakoa da, saloi oinplanokoa, euskal gotikoaren eredu. Gurutzeriazko gangak sei zutaberen gainean oinarriturik daude eta oinaldean korua du. Absidearen kanpoko aldean antzinako elizaren aztarnak ikus daitezke. XVI. mendean burutu ziren zabalte eta berritze lanak. Garai honetakoa da berebat, Juan de Bolibarren diseinuaren arabera eraikitako dorrea.

Erretaula XVIII. mendekoa da, estiloz churriguereskoa, Luis de Camonak diseinatu. Erdiko lanpara, kristalezko dilindaria Bohemiatik ekarritakoa da; itxuraz, Sevillako katedralera bidaltzekoa Zen, baina nahigabe Segurara ailegatu Zen eta bertan gelditu.

■ Lardizabal Kalea

Lardizabal kalea mendeetan zehar Arabatarren kalea izenez ezagutu da. Egungo izena Lardizabalarren jauregiarekin loturik dago, orain dela urte batzuz geroztik udal-
txe dena. Jauregia barrokoa da eta XVIII. mende hasieran eraiki Zen.

Kale honetako beste zenbait eraikuntza jakingarri 13. eta Igo zbk.an lekutzen dira. Azken hau Jauregi etxea (*6) izenez ezagutzen da, XVI. mendekoa, Segurak zituen ata-



Jauregiko ataria.

rietako baten alboan lekaturik, Zubi Haundi-
rekin batera bikotea osatzen du.

Kalearen mutur batean Arrue etxea (*5)
kokatzen da. Eraikuntza errenazentista da,
azkeneko solairuan arkuteri ederra duena.
Iadanik 1542an aipaturik azaltzen da.

AUZUNEAK


Harresiturik dagoen barrutiaz beste
aldera eta Errege Bidearen igarogu-
nearekin bat etorriaz, auzuneak
barreiatzen dira. Behekoa, Magdalena ize-
nez ere ezaguna da, eremu horretan izan
Zen ospitale bategatik. Eraikuntza oraindik
zutik dago, baserri bihurtua (34-75).

Goiko auzunean sortzez Garbiaren
komentua lekutzen da (*2) XVII. mende-
koa. Lehenengo fundazioa 1519koa da.
Urte berean parrokia ondoko santutegi
batean lekutzen da, 1645eko suteak guztiz
kiskali zuena.

UDALERRIA

San Andres

Auzo hau Goiko auzunearen ondo-ondo-
an lekutzen da Zegama aldera.



San Andres basilizaren barrenaldea.

Baseliza Parrokia izan zelako ziurtasunik
bada, beraz, litekeena da tokian jendea ber-
takoturik egotea hiribildua sortu aurretik.
Baseliza anaigo baten egoitza izan da eta
agiritan bada bere berri 1374az geroztik.

Elkarlaguntzarako elkarte hauek orde-
kotza zabala izan zuten Gipuzkoan. Juan 11a
izan Zen 1422ko estatutuak berretsi zituena.

Auzo honetan baselizaz gain aipagarriak
dira Armaolako erota (34-80), oraindik ere
badabilena, eta ondoan duen zubia. Zubi
honetan zehar igaro ohi Zen Errege Bidea.

Santa Engrazia

Santa Engrazia auzoa herriaren beste
muturrean lekutzen da, Mutilorako bide
ondoan.

Eraikuntzarik aipagarrienak Ondarra
baserria (34-76) eta izen bereko baseliza
(34-72) dira. Santa Engrazia baselizak seku-
lako ospea du baserriarren artean. Eraikun-
tza ederrekoa da, kanpandorra eta arku
zortzoko sarrera gailentzen direla.

■ Arrabiolako burdinolaren aztarnak (34-
50), bailaran -Arrasateko tailerrak salbu-
esistitzen den altzairuzko tradizio fabrika
bakarrekin lotzen dira.

Santa Barbara (39-27) eta San Sebas-
tian (34-83) baselizak, hurrenez-hurren XVII.
eta XVIII. mendean berri direnak eta Erbio-
la (34-82), Arginetxe (34-74), Katarreta (34-
51) eta Kortaberri (39-26) baserriak herriko
beste hainbat testigantza aipagarri dira.
Udal barrutian sakabanaturik lekutzen dira
gehientsuenak nolabaiteko garrantzia duten
bideei lotzen bazaizkie ere.

Seguran gorde diren aztarnetarik zaha-
rra berriki zulatutako Zorrostarriko tumulua
da (39-28). Kalkolitikoari dagokio, Kristo jaio
aurretik lau mila urte lehenago eraikia izan
zelarik.



Arrue etxea.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

